

Mikel Urdangarin Irastorza

Joxe Azurmendi hil da, baina haren obra ez

Joxe Azurmendi hil zaigu. Askatasunaren pentsalaria, maisua, gertukoia... Laudorio hitzak agortu zaizkigu jada. Eta orain zer? Zer egin obra kolosal eta bizi horrekin?

Aukera bat izan daiteke Azurmendiren pentsamenduarekiko ezaxola izatea. Ulergarria izan daiteke, gizaberetxook mugatuak baikara eta irakurri beharreko autore askorekin halaxe egiten baitugu. Hala ere, bada kezkatzen nauen joera bat: batzuetan badirudi Bruno Latour edo beste edozein pentsalari 'unibertsal' aipatzeak Azurmendirengana jotzeak baino distira handiagoa daukala. Hitzek gazteleraz, frantsesez edo ingelesez beste indar bat dute, antza. Jakina denez, baina, prestigio eta autoritate desoreka hori ez da ausazkoa, kapital eta biolentzia sinbolikoaren egiturazko birbanaketaren ordaina baizik. Botere auzi bat, alegia. Beraz, hizkuntza eta nazio ez-hegemonikoaren aldeko hautu militantea egin dutenak ikusezin egitea ez al litzateke euskarazko hiztun eta pentsalarien subalternitatean sakontzea?

Gainera, hala eginez gero, gure pentsamendua askoz pobreagoa izango litzateke. Zorionez, historia ez da gurekin hasi, eta zorionez, badira gure aurretik gu pentsatzen ari garen auziak ondo eta zorrotz pentsatu dituzten pentsalariak. Zalantzarik gabe, Azurmendi da horietako bat. Hortaz, «hauskorrak» garelako onartu eta «entzun zaleak» izatea dagokigu guri ere.

Entzun eta ikasteak ez du esan nahi Azurmendi akritikoki gurtu behar dugunik, ezta haren tesiak dogmatizatu eta EgiA bilakatu behar ditugunik ere. Joxe, gu bezalaxe, 'dentxo' izan da, bere inguru eta garaiari lotutako kezka, ilusio eta auziekin. Haren obra, berriz, adabakiz adabaki osatutako collage moduko bat, interpretazio ezberdinei bide eman diezaiekeena (pentsa, zenbait kasutan Azurmendi Azurmendiren kontra erabiltzeraino). Hori gutxi ez, zegamarra halakoen kontra

agertu izan da beti: Marx, Kant eta abar «pentsalari handiak dira, ez pentsatzaile santuak», errepikatzen zuen. Beraz, Azurmendi jainkottzen hasiz gero, «ni ez naiz azurmenditarra» baieztatuko luke segituan, Karl Marxen tankeran.

Collage horren izaera irekia probestuz, Azurmendiren puzzletik piezarik deserosoenak kentzeko tentaldia ere egon daiteke. Esaterako, Azurmendiren obra biolentziaren eta nazioaren inguruko gogoetetatik bereiztekoa, 'iraganeko' keriak albo batera utzi eta meneko 'demokrata' (hots, biolentoa) bilaka dadin. Hori, baina, *contradictio in terminis* litzateke, gorringorik gabeko arrautza bat, haren hausnarketak ezin baitira ulertu biolentziak zeharkatutako 'sakaba-nazio' baten testuinguruan ez bada. Gainera, Palestinako genozidioaren, eskalada militarren eta estatuen 'itzuleraren' garaian (inoiz joan al dira?), gaurkotasun latza dute.

Aurrekoari lotuta, instituzioek haren figura fosilizatu eta kooptatzeko ahalegina egin dezakete. Ez da erraza izango, instituzioekiko beti errezeroak izan baititu Joxek. Instituzioek ere bai harekiko, baina azken urteetan eta hil berritan aitortza ugari egin dizkiote. Ondo dago, zer gutxiago. Aitzitik, bakea bezalaxe, euskal pentsamendua ere, predikatu baino, egin egin behar da: adibidez, zergatik ez bermatu ikasle guztiek Azurmendi (eta beste hainbat autore ikusezin) ezagutzea? Hori izango litzateke aitortzarik eraginkorrena.

Hortaz, ez ikusezin, ez Jainko, ez fosil. Zer egin? Nire ustez, espiritu azurmenditarrari segika, Azurmendirekiko elkarrizketa kritikoa sarkontzea da erronka. Bai mamiz, bai formaz, aukera ederra dugu horretarako. Izan ere, haren uzta amaigabea da, erraldoia ez ezik amaitu gabea, osatugabea izateak ahalbidetzen baitigu hurrengo belaunaldioi gure nahi eta beharren arabera berrosatzea. «Nire obra ez da nirea» aldarrikatuz, mundua nola, bere obra ere «gure aurrean zabalik» utzi digu.

Eta hori sekulako oparia da. Joxe Azurmendi gogoan, haren alde edota kontra, aprobetxa dezagun.